



*Gipuzkoako Foru Aldundiaren*  
***Giza Eskubideak,***  
***Oroimenaren berreskurapena***  
***eta Bizikidetza PLANA***  
***2012-2015***



## AURKIBIDEA

### 1. GIZA ESKUBIDEAK ABIALERROAN GIZARTE HOBERANTZ

1.1 Giza Eskubideak eta Oroimenaren berreskurapena

1.2 Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritzaren planaz

### 2. HELBURUAK ETA LAN LERRO NAGUSIAK

2.1 Hiru helburuak eta lan lerro nagusiak

2.2 Zeharkako hiru ardatzen eragina: Ikuspegi parekidea, Giza Eskubideen inguruko hezkuntza eta Parte-hartzea

### 3. GIZARTE HOBEAREN ALDEKO ERRONKAK

3.1 Giza Eskubideetan oinarritutako kultura defendatu eta sustatzea

3.2 Bakea, Berradiskidetzea eta Oroimenaren berreskurapena

3.2.1 Egia, lehen urratsa

3.2.2 Gizartearen berradiskidetzea

3.2.3 Oroimenaren berreskurapena

3.3 Giza Eskubideen Erakundeak

### 4. ERRONKA GEHIAGO

### 5. BIBLIOGRAFIA

## **1. GIZA ESKUBIDEAK ABIALERROAN GIZARTE HOBERANTZ**

### **1.1 Giza eskubideak eta Oroimenaren berreskurapena**

Euskal Herriko eta Gipuzkoako gizartea indarkeria ezberdinek astindu dituzte, hamarkada luzeetan zehar, pertsonen eta taldeen arteko erlazioak apurtuz eta amildegiak eraikiz elkarrekiko harremanetan eta komunikazioan. Hesi handi batez bereizirik baleude bezala aurkako taldeek euren egoerari eta sufrimenduari bakarrik erreparatu diete, "bestearena" ez ikusiz edo kontuan izan gabe, eta zenbait kasutan, besteen mina mespretxatuz.

Halako testuinguruan, oso beharrezkoa jotzen da bizitzaren aldeko eskubidea lehentasunezko tokian jartzea eta giza eskubideen aldeko errespetua eguneroko elkar-bizitzaren portaeren gida bihurtzea.

Garapen humanoaren ereduak, pertsonak oinarri gisa jartzen ditu. Pertsonak aske behar dute izan haien aukerak burutu eta haien bizitzan eragiten duten erabakien adostean. Neurri horretan, giza eskubideek pertsonen askatasunarekin bat egiten dute, banaezinak eta elkarren osagarriak dira.

Izan ere, bakea eraikitze eta mantentzeko oinarrizko osagaiak dira, horiek gabe ez baitago urrun joaterik normalizazio politikoaren bidetik. Gurea bezalako gatazka suminduetan ezinbestekoa gertatzen da, berradiskidetzearen aldeko mugimenduak egiteko giza eskubideek duten arbitro izateko ahalmenaz baliatzea nazioarteko estandarren eremu barruan.

Giza eskubideen ezagutzak eta errespetuak gidatu dituzte munduan zehar izandako era guztietako gatazkak konpontzeko ahaleginak. Esperientzia hauek eskubide hauen balio unibertsalean eta aitortzan izan dute oinarri, eta bake erlazioetan oinarritutako prozesuak eraikitze tresna garrantzitsuak izan dira. Hortaz, Euskal Herriak hasi berria duen bake prozesuak bere errealitateri dagokion bidea egiteaz gain hainbat ispilu ditu non begiratu, horiek guztiek giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbide printzipioekin bat egiten dutelarik.

Izan ere, giza eskubideak esaten dugunean gizon eta emakumeen giza eskubideaz ari gara une orotan, baina, ezin ahaztu, giza eskubideen nazioarteko arautegietan emakumeek eskubide guztiak onartuak badituzte ere, hauen garapen errealerako lan berezia behar dela egin gizarte orekatu eta demokratikoa eraikitzerako orduan, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak hain baitira ugari eta errotuak.

Bake erlazioak nagusi diren gizartea eraiki nahi bada, munduko gatazka horietan bezala, Euskal Herriko gatazkan ere, etorkizun hobea eraikitzeaz bat atzera begiratu beharra dago gertatutakoaz jabetzeko eta pairatutako giza eskubideen urraketak argitzeko eta erreparatzeko.

Oroimen Historikoen prozesuak, oro har, gizartearen azterketa giza eskubideen betaurrekoak jantzita egiten ahalegintzen dira, nazioarteko giza eskubideen legediaren araberrako biktimaren eskubideak diren egia, justizia eta erreparazio politikak ezartzeko.

Oroimen historikoa giza eskubideen aldeko lanaren baitan kokatu beharra dago. Oroimen Historikoaren berreskurapenerako jarduera giza eskubideen urraketak gainditzeko jarduna baita, egiaren ezagutzatik soilik eratorri ahal baitira justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea barne. Gure oraina ulertzeko garrantzitsua da atzera egin eta gertatutakoari arreta jartzea, herritarrak, gipuzkoarrak beraiek baitira oroimen kolektiboaren erdigunean.

ETAk bere jardunari behin betiko amaiera eman ondoren, gatazkari irtenbidea emateko erronkak aurrerapausoak eskatzen ditu. Gatazkaren izaera bortitza bake giroan eraldatzeko, giza eskubide guztien urraketa guztiak amaitzearekin batera, egia, justizia eta kalteen ordaintzari ekin behar zaie. Honela eginez lor daiteke zauriak itxiko dituen bake bidetik berradiskidetze prozesua martxan jartzea. Baina giza eskubideak kontuan hartuko dituen bakeaz ari gara, justiziari estuki lotuta dagoenaz.

Gizarte honen berradiskidetze prozesuak giza eskubideen ezagupenaren eta errespetuaren eremuan murgiltzea eskatzen du. Ikuspuntu honen bidez jantzi behar dira politika publikoak, batez ere zauriak osatzera zuzendurik daudenak. Berdintasun irizpideen arabera landu beharreko politikak dira, jarrera edo posizio ideologikoez ez dezaten desorekarik sortu.

Biktimei egia, justizia eta erreparazioa ematea berradiskidetzeari eta bizikidetza hobeari bidea zabaltzea da. Itzaletik atera behar dira oraindik ere ezkutuan dauden giza eskubideen kontrako urraketak, egia eta justiziarik gabe ez baitago bakea eraikitzerik. Gaur egun, oraindik ez dago motibazio politikoko giza eskubideen urraketarekin erlazionaturiko biktima guztien eskubide eta egoerak aintzat hartu dituen politika publikorik, gertakarien egileen araberrako bereizkeriarik egin gabe. Are gehiago, praxi politikoak era guztietako bereizketak sortu ditu; Legedia asimetrikoak biktima ezberdinentzako eskubide ezberdinak eragin ditu<sup>1</sup> eta zentzu honetan ere, indarrean dagoen salbuespeneko espetxe politikak eta legediak presoek eskubideak behin eta berriz urratzen dihardute.

---

<sup>1</sup>ARGITUZ. 2011: *Euskal Herrian gertatutako Motibazio Politikoko Indarkeriaren Biktimen Politika Publikoak ebaluatzeko Txostena*.

Hortaz, bakea zuzeneko biolentziaren desagerpena baina haratago doa. Bake iraunkorrak giza eskubideei errespetua zor die. Gatazken ebazpenetan nazioarteko aditua den Johan Galtung-ek<sup>2</sup> bake positiboa esaten dio gizartean dauden egiturazko indarkeriak gainditu nahi dituen horri.

Bake horren bidean kokatzen da normalizazio politikoaren aldeko lana.

Armak isildu diren momentu honetan erakunde eta gizartearen arteko ahalegina bakerantz ezinbestekoa da, eta zentzu honetan euskal gatazkaren inguruan sortutako biolentziak zabalduko zauriak tratatzeko eta gainditzeko beharrezkoak diren lan tresnak eskaintzea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eginkizuna

Erronka erraldoia da, oztopoak eta zailtasunak kale betean daude. Zentzu honetan, argigarria da Marcela Lagarde, mexikar antropologoak, Bilbon, 2012ko maiatzean emandako hitzaldian azpimarratutakoa. Bakea eraikitzearen prozesua bi printzipio hauekin lotu zuen: lehena, ez dagoela egia bakarra onartzea (ez dagoela gauzak ikusteko modu bakarra); eta bigarrena injustua dena aitortzeko beharra azpimarratzea du, edozein izanik ere injustiziaren eragilea.

Gertatuarekiko begirada kritiko hau berradiskidetze prozesuaren sustrai sakonean aurkitzen da, giza eskubideak berradiskidetzearen bidearen hasiera eta helmuga diren bezala, bake harremanak nagusi diren gizartea lortzeko. Eta zeregin horretan, biolentziek eta giza eskubideen urraketa larriek markatu duten gizarteak egiarekin du bere lehen konpromisoa.

Euskal gatazkaren inguruari lotuta dauden arazo eta biolentziaz gain, gaur egun, munduko gizarte guztiek eta bai eta Euskal Herriak ere, aurre egin behar diete populazioaren hazkundeak, ekonomia arloko aldaketa estrukturalak, migrazio mugimenduak, ingurumenaren degradazioak eta, oro har, gizartearen aldaketa azkarrak sortutako tentsioei .

Gizartearen gobernatzea ariketa zaila baina zailagoa bihurtu da egoera honetan. Elkarbizitzaren oreka hauskorra da eta bere euskarririk sendoenak giza eskubideak

---

<sup>2</sup> Johan Galtung. 1996: *Peace by Peaceful Means: Peace and Conflict, Development and Civilization*. London:Sage.

dira. Horien ezagutza eta praktikaren bitartez izango dugu gure egunerokotasunak sortutako gatazkei erantzun onargarria emateko gaitasuna, beti ere, bizikidetza baketsuaren ikuspuntutik.

## 1.2 Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritzaren Planaz

Dokumentu honek nazioarteko legedian du oinarria, hain zuzen ere, nazioarteko erakundeen gomendioetan, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegotik datozenetan batez ere. Eta baita ere, Argituz Giza Eskubideen aldeko elkarteak, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendariarentzat egindako plan baten edukien azterketan, hain zuzen ere, Gipuzkoarentzako Giza Eskubideen planaren edukien azterketan.

Bestetik ere, Giza eskubideen eremuan Euskadin egin diren planak eta ikerketak aintzat hartu dira honako honetan, besteak beste, *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzarako Euskal Plana (2008-2011)*<sup>3</sup>.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritzaren Plana gaurko Gipuzkoaren errealitateari begira egina da eta euskal gatazkak sortutako indarkerien inguruan egindako lanean du bere interesgune nagusia, gizartean gertatzen diren beste eskubideen urraketak baztertu gabe.

Gaurko egunean, giza eskubide guztien urraketa guztiak amaitzearekin batera biktima guztiak kontutan hartzeko prozesuak, egiaren ezagutza, memoriaren berreskurapena, justizia, erreparazioa, gizartean dauden hausturak konpontzea eta berradiskidetze prozesuak, arreta handia eskatzen ari dira gizartearen eta politikaren agendan.

Aieteko Adierazpenak, bere aldetik, bete betean zehazten du gatazkaren osteko berradiskidetze prozesuaren norabidea: "zabaldu diren zauri pertsonalak eta sozialak sendatzeko lagungarria delako, eginiko minaren aitorpena, biktima guztien aitortza eta

---

<sup>3</sup> Giza Eskubideen Zuzendaritza. 2009: *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzarako Euskal Plana (2008-2001)*. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza



berauek laguntza, eta errekontziliazioan aurrera egiteko urrats sakonak eman daitezke" <sup>4</sup> eskatzen baitu.

Lan honetan, Gipuzkoako udalerriak dira gure planen eta ekimenen helburu nagusia. Herritarrekin harremanik zuzenena duten udal erakundeekin batera lan egitea beharrezkoa jotzen dugu gaur egun giza eskubideen arloan, oroimenaren berreskurapenean eta berradiskidetze prozesuan sortutako erronkek benetako hedapena izan dezaten Euskal Herriko eta Gipuzkoako gizartean. Pertsonengana iritsi nahi bada, giza eskubideen kultura bere egin dezaten nahi badugu, eta errespetuan oinarritutako elkarbizitza eraikitzeke pausuak eman nahi badira udalen konplizitatea eta egiturekin kontatu beharra dago, horretara bideratuta dauden programen eragile nagusiak izan daitezke.

Horretarako, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza Nagusiak "Bizikidetzaren sustatzeko programa" egin du. Tresna honen bitartez udalek beharrezkoa duten laguntza tekniko eta aholkua emango die, beren egoera eta baldintzei egokituta, giza eskubideen, oroimen historikoa berreskuratzearen eta elkarbizitzaren aldeko egitasmoak martxan jar ditzaten.

Hori horrela izanik, eta Nazioarteko Giza Eskubideen araubidearekin bat eginez, giza eskubideen gainerako urraketa larriak ere Zuzendaritza honen kezka eta ardura dira era berean. Ikuspuntua, beraz, zabalagoa egin nahi da, eta beste lan lerro batzuk ere kontuan hartuko ditu, Berdintasuneko Zuzendaritza, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua, edo Gizarte Politikako Departamentuarekin batera lan egiteko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, interes orokorrak kudeatu eta defendatu behar izateaz gain, oinarritzeko eskubide eta askatasunen begirune orokor eta eraginkorra ziurtatu behar du eta, biztanleei zerbitzuak ematen dizkien organoa den aldetik, sustatzen dituen ekintza guztietan giza eskubideekin bat datozen jokabide arduratsuak bultzatu behar ditu.

---

<sup>4</sup> Aieteko Adierazpena. 2011ko urria

Izan ere, plana irekia da, bidea egin ahala proposamen eta ekintza berriak onartzeko filosofiaren baitan sortutakoa.

## **2. HELBURUAK ETA LAN LERROAK**

### **2.1 Hiru helburuak eta lan lerroak**

Giza eskubideen inguruko planen xede nagusia da lurralde jakin batean giza eskubideen sustapena eta babesa areagotzea, bizikidetza normalizatua lortzearen.

Nolanahi ere, Plan honek tresna eraginkorra izan nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat, batik bat Gipuzkoako Lurralde Historikoan giza eskubideak sustatu eta babesteko zereginari laguntzeko. Tresna hau nazioarteko estandarrekin bat etorritik, eta Gipuzkoako gaurko errealitate politiko eta sozialaren berezitasunak aintzat hartuz, sortu da

Epe ertainean eta baita luzean ere, giza eskubideei buruzko informazio eta prestakuntza landuz, gure gizartean jarreraren aldaketa bultzatu nahi da. Aldaketa horrek kontzientzia zabalduko du, herritarrengan eta erakundeetan, giza eskubideen kulturaren behararen gainean.

Horrekin batera, giza eskubideak errespetatzeko ahalegin jarraituak bideratuko ditu biolentziaren ondorioz aurrez aurre dauden taldeek elkar aitortzeko guneak irekitzeko, berradiskidetzeari aukerak emanez.

Arestian esan bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza legealdirako lantzen ari den Plana Giza Eskubideen Nazioarteko arauetatik, eta bertan egin diren giza eskubideei buruzko plan eta dokumentuetatik sortzen du. Oinarri hauek kontutan harturik osatu ditu legealdi honetarako Planaren lan lerro nagusiak.

2012-2015 Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritzaren Planaren mamia eta zutabea hiru helburu hauen lortze prozesuan aurkitzen dira:

- Giza eskubideen babesa eta sustapena hobetzea elkarbizitza normalizatu baten alde, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizartearen eta administrazioaren prestakuntza eta sentsibilizazioaren bitartez .
- Euskal Herrian gatazkaren inguruan gertatutako indarkeria ezberdinen ondorioak, hots, giza-eskubideen urraketak, minak, sufrimenduak eta gizarte zatiketak gainditzeko lan egitea, eta oroimenaren berreskurapenari ekitea, biktima guztiei egia, justizia eta erreparazio eskubideak bermatuz normalizazio politikoa, berradiskidetzea eta gizarte baketsua lortzera eraman gaitzan.

- Gizarte eragileak, erakundeekin batera, bidelagun izatea normalizazio politikoa, berradiskidetzea eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako bakea lortzen, eta horretarako proposamenak aurkeztea.

Helburu horietatik abiatuta, Giza-eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritzak legealdi honetarako erronka nagusiak zehaztu ditu, urtez urte, lan ardatz izango diren ekimen eta ekintzen gidari,:

- Giza eskubideekin errespetuzko kultura defendatzea eta sustatzea**
- Bakea, berradiskidetzea eta oroimenaren berreskurapena**
- Giza eskubideen erakundeak.**

## 2.2 Zeharkako hiru ardatz

Ekintza eta programa guztiak hiru ardatz hauez baliatuko dira beren lan helburuak osatzeko.

- Ikuspegi parekidea
- Giza eskubideen inguruko heziketa
- Parte-hartzea

### ***Ikuspegi parekidea***

Generoarekin lotutako gaiak programa sozialetan sartzeko (eta ondorioz, giza eskubideen planetan) ideia ez da berria. Izan ere, Pekinen, Emakumeei buruzko Nazio Batuen Mundu mailako Laugarren Konferentziak 1995ean ezarri zuen generoen arteko berdintasuna sustatzeko estrategia global gisa.

Horren eraginez, 1997ko uztailan, Nazio Batuen Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak honela definitu zuen generoaren ikuspegia zeharkako bilakatzea:

"Mainstreaming" izendatu zen estrategiak ikuspegi parekidea zeharkako bilakatzea du helburu; hau da, antolatzen den edozein ekintzak gizonentzat eta emakumeentzat dituen ondorioak balioztatzea. Ekintza horiek politikak, programak, legeen arlokoak, edozein arlotakoak nahiz mailatakoak izan daitezke. Estrategia horren xedea da emakumeen zein gizonen kezkak eta esperientziak honako hauen guztien barnean

egotea: arlo politiko, ekonomiko eta sozial guztietako politikak eta programak egitean, horiek abiaraztean, kontrolatzean eta ebaluatzean. Horrela, emakumeek eta gizonek era berdinean jasoko lituzkete horien onurak, eta desberdintasuna etengo litzateke. Horien artean sartzearen azken xedea generoen arteko berdintasuna erdiestea da.

Zeharkako bilakatzeko estrategia honen barruan, berdintasun nahiz ekintza positiboaren arloko jarduera espezifikoa daude, desberdintasun egoeran daudenak emakumeak edo gizonak direla ere. Berdintasunerako parte-hartze espezifikoa hainbat modutan bidera daitezke: emakumeei ez besteri, emakume eta gizonei aldi berean edo gizonei ez besteri zuzenduz.

Horri esker, biek ala biek parte har dezakete garapen lanean, eta onurak maila berean jasoko lituzkete. Behin-behineko neurri beharrezkoak dira, eta iraganean sortutako bereizkeriaren ondorio zeharkako zein zuzenei aurre egiteko sortu dira.

Giza eskubideak bultzatu, indartu eta babesteko, ikuspegi parekidea txertatzea ezinbestekoa da. Neurri horretan, nazioartetik burutzen ari diren printzipioak geure egiten ditugu: parte-hartzea; kontu ematea; bazterketarik eza eta berdintasuna bulnerabilitate arriskuan dauden taldeentzat; Enpoderamendua; eta Giza eskubideetan oinarritutako estandarrak artikulatzea.

### ***Giza eskubideen inguruko heziketa***

Nazio Batuen Batzar Nagusiak adierazi du giza eskubideen inguruko heziketa gakoa dela Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko eskubideak eskuratzeko.<sup>5</sup>

2003an Ginebran burututako Informazioaren Gizarteari buruzko Munduko Konferentzia ere erreferentziazkoa da, pertsonengan zentratutako informazioaren gizartea bultzatzea baitu xede nagusi, pertsonen, komunitateen eta herrien garapen eredia bultzatuko duena, pertsonen eta herrien informazio iturri desberdinak eskuratzearen bidez haien eskubideak gauzatu ditzaten.

Giza eskubideen inguruko prestakuntza hezkuntza-prozesu bat da eta, horren bitartez, bakearen, tolerantziaren eta giza eskubideak errespetatzearen balioa transmititu nahi da.

Helburua da herritarrak aske eta senezkoak izatea, eta hauek euren eskubideak ezagutzea eta gainerakoenak errespetatzea. Giza eskubideen inguruko heziketa garrantzitsua da bi arrazoiengatik: batetik, gainerako pertsonen eskubideak errespetatzen laguntzen du; eta bestetik, biztanleek euren eskubideen berri badutenez, agintariei errespetatzea exijitzen diete.

Zentzu honetan, Euskal Herriko unibertsitateekin sinatutako lankidetzak hitzarmenei esker Foru Administrazioako langileei zuzendutako giza eskubideei buruzko prestakuntza ikastaroak bultzatuko dira.

---

<sup>5</sup>Nazio Batuen Batzar Nagusia. 1948ko abenduaren 10ean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onetsi zen. "Gertaera historiko horren ondoren, Batzar Nagusiak estatu kide guztiei dei egin zien, Aldarrikapenaren testua plazaratu zezaten eta "hedatzea, irakurtzea eta azaltzea lor dezaten, eskolatan eta beste heziketa erakunde batzuetan nagusiki, herrialdeen edo lurraldeen estatus politikoan oinarritutako inolako bereizketarik egin gabe". <http://www.un.org/Overview/rights.html>



Funtzionario eta langileentzako giza eskubideen inguruko prestakuntzaz gainera, Foru Aldundiak aintzat hartu behar du zenbait laguntza ildo irekita gorde beharko dituela, kontu hauen gainekoak:

- Giza eskubideen inguruko heziketari dagozkion gaitasunak garatzea Gipuzkoako esparruan. Hori egiteko, lankidetza abiarazi daiteke garapenerako hainbat proiektu eta programatan, eta hitzarmenak egin daitezke beste erakunde batzuekin, hala nola, Eusko Jaurlaritzarekin eta udalekin.
- Irakaskuntzarako materiala sortu eta argitaratzea.
- Argitaratutako eta interesgarriak diren materialak euskaratu eta egokitzea.
- Laguntzeko eta lanerako ekintzak sarean.

Bestetik, eskoletako heziketaren eskumena ez da aldundiena eta udalena, Eusko Jaurlaritzarena baino. Nolanahi ere, aldundiak eta udalak eskudunak dira erakunde horietako langileei giza eskubideen inguruko prestakuntza emateari dagokionez. Hori dela eta, Planak prestakuntzarako neurriak inguratzen ditu eta horregatik heziketa Planaren zeharkako ardaztat jo da.

## ***Parte-hartzea***

Parte-hartzea da, hain zuzen, Giza Eskubideen Plan honen ardatz estrategikoetako bat. Planaren arrakasta zeharo areagotzeko, parte-hartze politikoa eta gizarte zibilarenak dira beharrezko:

### **A. ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK**

Gure gizarteak bakea eraikitzeko aukeraz beteriko unea bizi du eta berauek maila guztietan erakundeek egindako ahaleginetan gauzatzen dira. Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetza Idazkaritza, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Bakegintzarako Talde Txostengilea eta Berdintasun politiken, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Batzordea ditugu nahitaezko erreferenteak berauekin lana partekatzeko eta ekimenak koordinatzeko orduan. Plan honen zereginetatik informazio bideak zabaltzeko eta mantenduko dira; ekintzak eta dokumentuak elkarri eman eta kontrastatuko dira beti ere gure lanaren eragina handiagoa izan dadin gizartean.

### **B. GIZARTE ZIBILAREN PARTE HARTZEA:**

Konplizitatea bilatzea arlo bakoitzean aritzen diren gobernu kanpoko erakundeekin (GKE).

Parte-hartzea islatzeko beste era bat GKEen bitartekoa da. Erakunde horiek, hain zuzen, zenbait auzi sozialen alde egiten dute botere publikoak ordeztu gabe baina hauek ebaluatuz, kritikatu eta lagunduz ere bai. Oro har, ondo ezagutzen dituzte lantzen dituzten arloak; horrenbestez, oinarritzakoa da haien parte-hartzea eta/edo konplizitatea lortzea Giza Eskubideen Plana arrakastatsua izan dadin.

Oroimen Historikoaren kasuan, iraganean gertatutakoa argitu eta errekupearearen alde lan egiten duten elkarte, alderdi politiko, sindikatu eta abar elkartuko dituen foro bat sortzea sustatuko da; gune honek aholkularitza eta dokumentazio lanak hala nola gomendioak egingo ditu.

### **3. GIZARTE HOBEAREN ALDEKO ERRONKAK**

#### **3.1 Giza eskubideetan oinarritutako kultura defendatu eta sustatzea**

Justizia, askatasuna, parekidetasuna eta elkartasun printzipio demokratikoen oinarrien gainean eraiki nahi den edozein gizarterentzat **giza eskubideak eta bakea** ezinbesteko erreferentea dira. Giza eskubideak defendatu, errespetatu eta beteko direla bermatzen duten politikak sustatzea da bakearekin eta bizikidetzarekin konprometitua dagoen edozein erakunderen zeregina. Are gehiago gure gizartean non indarkeriaren kulturak urteen poderioz herritarren arteko harremanak kutsatu dituen.

Politika horiek bultzatzeko lehen urrastzat har daitezke Giza Eskubideak errespetatzea eta bakean oinarritutako kultura ezagutaraztea, hezkuntza eta prestakuntza jardueretan oinarrituz.

Horrekin batera, gurean egon diren giza eskubideen urraketa guztiak ezagutu eta ezagutarazteko ahalegina sustatzea, egia guztien ezagutzak erraztuko baitu elkarbizitza. Oroimen historikoaren garrantzia horretan datza.

Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren beharra eta onura azpimarratzerakoan **Nazio Batuek bultzatutako eta Vianan 1993an egindako Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzia** hartu behar da inflexio-puntutzat.

Konferentzia horren azken deklarazioan eta ekintza-programan zehatz-mehatz bildu zen giza eskubideei buruzko hezkuntza, trebakuntza eta informazio publikoa ezinbestekoak direla komunitateen artean harreman egonkor eta harmoniatsuak ezarri eta sustatzeko, baita elkar ulertzea, tolerantzia eta bakea bultzatzeko ere.

Honako hau izan daiteke giza eskubideetan oinarritutako – eta giza eskubideetarako – hezkuntzaren definizioa: “Giza eskubideen arloan kultura unibertsala sortzera bideratutako trebatzeko, hedatzeko eta informatzeko jardueren multzoa. Jarduera horiek jakintzak transmitituz eta jarrerak moldatuz egiten dira, eta honako helburu hauek dituzte:

- a) Giza eskubideak eta funtsezko askatasunak ezagutzea eta horien errespetua indartzea,
- b) Giza nortasuna eta gizakiaren duintasunaren zentzua erabat garatzea,
- c) Sexuen arteko elkar ulertzea, tolerantzia eta parekidetasuna sustatzea, eta herrialde, herri indigena eta talde guztien arteko adiskidetasuna bultzatzea, edozein arraza, nazio, etnia, erlijio eta hizkuntza edukita ere,
- d) Pertsona guztiek gizarte aske batean parte hartzeko aukera izan dezaten erraztea;

Honako helburu nagusi hau dute guztiek: pertsona baketsuak lortzea eta, era horretan, demokrazian, tolerantzian, errespetuan, pertsonen duintasunean eta garapenean, egian eta gizarte-justizian oinarritutako gizarte bat eraikitzea.

Gizarte demokratiko guztiek dute giza eskubideen eta bakearen ezagutza eta errespetu sakona herritarren artean sustatzeko betebeharra. Euskal gizartearen kasuari dagokionez, hezkuntza-lan handia egin behar da giza eskubideak bizikidetzaren erdigunean jartzeko, indarkeriak utzitako pisua arindu nahi bada. Lan horretan gizarte sektore askok parte hartu beharko dute eta erakundeek buruzagi izan, bultzatu eta koordinatu egin beharko dute, betiere aintzat hartuz benetako protagonismoa gizarteari berari dagokiola<sup>6</sup>.

#### *Elkarte eta Udalentzako programak*

Esan bezala, gizarte arloko elkarte eta mugimenduak, nola udalak, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak dira. Gertutasun honek bihurtzen ditu Zuzendaritza honen programen eta ekimen askoren helburu, eta berauen jardueren menpe egongo da ekintzak gauzatzeko erantzukizun nagusia.

Horretarako, bake-kultura eta giza eskubideen ezagutza zabaltzeko bi diru-laguntza programa daude, bata udalei eta mankomunitateei zuzendua; eta bestea irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei zuzendua. Diruz laguntzen diren proiektuak lan ildo hauen eremuan garatu dira: Elkarriketa eta aitortzarako esparruak sortzea; prestakuntza eta trebakuntza; materialak eta argitalpenak egitea; zabalkundea eta sentsibilizazioa; egia ezagutzeko eta dokumentatzeko ekimenak zein ikerketak; aintzatespen eta oroimen ekimenak; hezkuntza eta prestakuntza programak.

Ekimen hauekin batera beste lan ildo hauek ere proposatzen dira:

---

<sup>6</sup>Giza Eskubideen Zuzendaritza. 2009: *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzarako Euskal Plana (2008-2001)*. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurkitza

- Euskal Herriko unibertsitateekin publikoa eta pribatuekin lankidetzaz hitzarmenak egitea prestakuntza eta sentsibilizazio ekimenak burutzeko.
- Urtero abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren urteurrenaren inguruan sentsibilitate ekimen ezberdinak bultzatzea: hitzaldiak, jardunaldiak, mintegiak,... nagusiki hezkuntza zentroen eta udalen eskumena bilatuko da elkarrekin oroipen ekimenak egin dezaten gaztediaren protagonismoa suspertuz.
- Bizikidetzari buruzko prestakuntza eta trebatze ikastaroak bultzatzea elkarrekin eta udalei zuzenduak. Ikastaro hauek udalerrietan bizikidetzaz, oroimen edo giza-eskubideei buruzko dituzten kezka edo eskakizunak kontutan hartuz antolatuko dira.
- Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoari buruzko beka deialdiak egin kanpo unibertsitatetan ikasketak egiteko. Zehazki, Ulsterreko Unibertsitatearekin akordio bat egin da bi beken deialdirako.
- Gazteen prestakuntzari begira, giza eskubideei buruzko eta bizikidetzari buruzko formazio ikastaroak aisialdiko teknikari, hezitzaile eta begiraleei zuzenduak. Izan ere, gazte talde hauek prestatuz eta sentsibilizatuz efektu biderkatzailea lortuko dugu, euren ardurapean izango diren haur eta gazteei zuzenduko lizkietelako jasotako prestakuntzaren onurak. Hartara, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuarekin koordinatuz programatuko dira prestakuntza ikastaroak. Departamentu honek giza-eskubideei buruzko modulu bat txertatu du gazteriako teknikariei zuzendutako prestakuntza Planaren barruan.

### 3.2 Bakea, Berradiskidetzea eta Oroimenaren berreskurapena

Hasi berria den bake prozesuak arrakastarik izateko beharrezkoa da berradiskidetze lanari ekitea eta horri begira dauden ekimenak eta ekintzak garatzea; horrekin batera, elkarbizitza demokratikoa sustatzeko eta gatazkaren arrazoiak gainditu eta ondorioak konpontzeko estrategiak abia arazteko asmoak eta ekimenak bideratzea.

Eskubide urraketa guztien desagertzearekin batera, gatazkaren ondorio diren bi egoera, **biktima guztiena** (egia, justizia eta erreparazioa) eta **banandutako gizartearena** (Berradiskidetzea) konpondu behar ditugun gai larrienetakoak dira.

Berradiskidetze prozesurako alor honetako nazioarteko araubide espezializatuak bezala geure senak dio funtsezkoa eta lehentasunezkoa dela **zer jazo/gertatu den eta zergatik gertatu den jakitea**<sup>7</sup>.

Oinarrizkoa da **egia** (zer jazo den) ezagutzea eta biktimei eragindako kaltea kontuan izatea inolako bereizketarik gabe, inolako sailkapen iraingarririk gabe eta egia, justizia eta kalte ordaintza giza-eskubideen nazioarteko zuzenbidearen printzipioak era egokian aplikatuz.

Biktimen aldeko aitortza eta kalte ordaintza jasotzen duen nazioarteko arauen arabera, Nazio Batuen Batzar Nagusien 60/147 Ebazpenak, kasu, argi eta garbi adierazten du urraketa hauen biktima guztiek dutela egia, justizia eta kalte ordaintzarako eskubidea, eta ezin da ezberdintasunik egin biktimak edo egileak izan dezakeen orientazio politiko edo beste mota batzuetarako arrazoiengatik.

---

<sup>7</sup>Acento 2011 para la reconciliación. *Propuesta de bases para enmarcar y promover de modo compartido un proceso de reconciliación*. Baketik



*Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen Urradura Argien Biktimen Eskubideari buruzko eta Errekurtsoak jartzeko edo bestelako ordaintza jasotzeko Nazioarteko Zuzenbide Gizatiarraren Urradura larriei buruzko Printzipio eta Oinarrizko Gidalerroak (2005eko abenduaren 16an Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako 60/147 ebazpena).*

Bestetik, gertatutakoaren **zergatiarekin** erlazionaturik dagoen guztiak bere denbora eta perspektiba behar ditu. Ez da erreza izaten indarkeria amaitu bezain pronto azterketa horri ekitea.

Kontakizunak anitzak dira. Beste lurraldeetako gatazka osteko esperientzien argitan ez da izango gertatutakoaren azalpen ala interpretazio bakarra.

Gatazken Ebazpenen Teorian erabiltzen den ideia klasiko batek ezberdintzen ditu elkarren aurka aritu diren taldeek defendatzen dituzten posizioak eta haien baitan dauden interesak eta beharrak. Aurkakoen artean, nola berradierazi euren posizioak? Nola berradierazi posizio horiek, erabat kontrakoak direnean, maiz gertatzen den bezala?

Adibidez, bi auzoko borrokan ari dira arbola bat dela eta; biek diote euren lur zatian dagoela arbola hori. Ez dago erdibideko irtenbiderik: arbola ezin da erditik moztu. Baina auzoko baten interesa arbola horren fruitua erabiltzea da eta bestearena, berriz, bere itzala aprobetxatzea. Beraz, interesak ez dira bateraezinak.

Teoria honen arabera interesak posizioak baino samurragoak dira berradiskidetzea bilatzeko orduan; eta gatazkaren mamia beharren eta interesen hizkuntzara eramaten den guztietan alde bien interesak asebeteko dituen irtenbide bat aurkitu daiteke.

Auzia zailagoa izan daiteke gatazkak baloreekin edo harremanekin zerikusia badu (maiz askotan negoziatzeko izaten direnak); hala ere printzipio bera erabili daiteke maila sakonago batean bateragarriak diren azpiko motiboak bilatzeko<sup>8</sup>.

Bestetik, hizkeraren eraginari erreparatu behar zaio talde ezberdinen arteko komunikazioa eta adostasuna bilatzerakoan, baita bake eta berradiskidetze kultura sustatu eta garatzerako orduan ere, gehienetan hizkuntzaren erabilerak berak arazoak eta komunikazio etenak sortzen baitu.

Hizkerak pentsamenduen transmisio soka den aldetik ideologiazko zama darama bere baitan, mundua ikusteko eta ulertzeko modu bat, besteak beste.

Gizarteko etenek hizkeran eragin dute eztabaida asko blokeatuz. Adibidez, batzuen ustez indarkeria politikoaz hitz egitea ETA legitimatzeko ahalegina da, beste batzuentzat bere atentatuen errekonozimendu politikoa da. Batzuen iritziz ETaren terrorismoaz hitz egin behar da baina beste batzuentzat horrela eginez Estatuaren terrorismoa ezkututzen da<sup>9</sup>.

Berradiskidetze prozesuei ekiteko lehen arazoa dugu berauek errekonozitzeko eta berauetaz hitz egiteko zailtasuna eta, horrez gain, geure posizioen eta geure defentsarako altxatu ditugun hizkuntz harresiak apurtu beharra gehitu behar zaio.

Horrenbestez, besteen egoera kontutan hartuko duen eta errespetuzko hizkuntza erabiltzeak bake harremanen ingurura hurbilduko gaitu; baina ezberdintasunak areagotzen dituen hizkeraren erabilpena oztopo bihurtuko da komunikaziorako, elkarren ulermenerako eta, azken finean, bakearen eraikuntzarako.

Bestetik, badago bake eta berradiskidetze prozesuei lotutako terminologia, hitzetik hortzera darabilguna: berdintasuna, egia, justizia, narrazioa (errelatoa), biktima, oroimena, bizikidetza, berradiskidetzea, aitorpena... dira horietako batzuk.

---

<sup>8</sup> Hugh Miall, Oliver Ramsbotham, Tom Woodhouse 2001. *Contemporary Conflict Resolution*. Polity Press

<sup>9</sup> Carlos M. Beristain. 2011: *Violencia, polarización o ¿(re)conciliación? El caso vasco*. Polarización social y política en Venezuela y otros países. Experiencias y desafíos. Temas de Formación Sociopolítica. nº 49

Kontzeptu horien atzean dagoen esanahia ez da guztiontzat berdina. Gatazken Ebazpenen eremuko adituen artean ere ez dago adostasunik, edozein diziplinatan bezalaxe, teoriak, korronteak edo eta interpretazioak aurkitzen baitira.

Aniztasun hau aberastasun adina zailtasun iturri izan daiteke, batez ere berradiskidetzea eta bestearen aitortza helburu dituen prozesuetan murgiltzerakoan. Zentzu horretan, ezberdinen eta aurkakoen arteko edozein talde-lanetan lehenik eta behin adostu beharreko auziak dira, hau da, kontzeptuak argitu eta adostu behar dira, berauek, gutxieneko akordiotara heltzeko ez daitezen oztopo izan.

### 3.2.1 Egia, lehen urratsa

Nazioarteko bestelako esperientzien arabera biktimei eragindako kaltea ezagutzea eta aitortzea lehendabizi egin beharrekoetakoa da berradiskidetze prozesurako. Politikak biktima guztiak barne hartzeko moduan eta biktima guztiekiko errespetu osoz bideratu behar dira.

ETAren bortxakeria jasan duten biktimek izan dituzte “Ley de Solidaridad con las Víctimas del Terrorismo” deituriko legea onartu zenetik hona (1999) lege markoa, aitortza neurriak, kalte ordainak eta bestelako laguntzak, gerora, 2008ko Euskadiko biktimen Legearekin zein 2011ko Estatuko Lege berriarekin indartuak eta osatuak izan zirenak.

Estatuko Segurtasun Indarrek ala eurekin bat etorrita eskuin muturreko taldeek zein talde parapolizialek eragindako biktimen kasuan, kasurik gehienetan, jasandako bortxakeriaren eta injustiziaren aitortza ez da kontuan izan.

Hauek guztiak Giza eskubide urraketa larriak jasan dituzten biktimak dira, zehazki, bizitzarako eskubidearen urraketak eta osotasun fisiko zein psikikorako eskubideen urraketak, eta erreferentzi berezi bat egin behar zaie, tortura eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarriak ez jasotzeko eskubideen urraketek.

Asimetria hau da joera nagusia oraintsu onartu berria izan den Eusko Jaurlaritzaren 107/2012 Dekretuak<sup>10</sup> berak ere zuzentzea lortu ez duena. Bere edukiaren azterketak agerian uzten ditu batzuen eta besteen arteko tratu desberdintzeak eta agerrarazten

---

<sup>10</sup> 107/2012 DEKRETUA, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa.

du oso kezkarria den gabezia, hots, ez dio aurre egiten tortura kasuei, salbu oso tarteka ageri diren lesioen parteak ageri diren kasu bakanetan.

Ikerketarik ezak, praktikan salaketen ia %100 artxibatu egiten dira, eragotzi egiten du torturaren eta tratu txarren egiazko neurria ezagutzea.<sup>11</sup>

Nazio Batuen Giza Eskubideen zein Nazioarteko Amnistiako erakunde desberdinek idatzitako txostenez gain beste hainbat nazioarteko erakundeek ere, Europako Giza Eskubideen Tribunalak, kasu, aldarrikatzen dute gai honetan jardun beharra.

Epaitegi horretatik ohartarazi da, halaber, terrorismoaren aurkako hainbat lege Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen printzipioekin bateraezinak direla. Horixe da Parot doktrinaren kasua. Europako Giza Eskubideen Epaitegiak Inés del Río kaleratzearen aldeko azaltzean zalantzan jarri du delako doktrina hori Nazioarteko Giza Eskubideen araubidearekin bat datorrenik.

Arazo hauek presoen eskubideen errespetuarekin batera edota giza-eskubideen printzipioen aurkakoa den terrorismoaren aurkako araubidea kontuan hartu behar ditu plan honek gizartea sentiberatzeko eta salaketa publikoak bideratzeko ekintzekin.

### *Ekimenak*

Euskal Herrian apurtutako harremanak berreraikiko diren marko ezberdin batera heltzeko eta adostasun sozial berriak sortzeko beharrezko ekarpenak dira **egia eta justizia**.

Min eta kalte gehienak konponezinak dira, biolentziak utzitako hutsunean ordezkaezinak dira baina indarkeriaren ondorioei aurre egiteko biktimak babestu eta

---

<sup>11</sup> Jon M. LANDA. Indarkeria Politikoaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketen biktimak. Txostena. Eusko Jaurlaritza 2008.

gizarte harremanak berreraiki behar ditugu. Prozesu honen irteera-lerroan egiaren ezagutza aurkitzen da, oinarritzko bete beharra da edozein bake bidetik ibili ahal izateko.

- Gertatutakoa argitzen laguntzeko eta horren inguruan ekarpenak egiteko helburuarekin Gipuzkoan gatazkaren inguruan izandako giza eskubideen urraketak eta pairatutako sufrimendua jasoko dituen datu-base baten diseinua lortzeko beharrezkoak diren hausnarketak eta ikerketak bultzatu,.  
Horretarako gaur egun Euskal Herrian bakea eta egiarekin lanean ari diren erakunde eta elkarteekin lan talde bat osatu data base horren edukiaren diseinua egiteko.

Diseinuak eskatzen du ikertuko direnen denbora epeak zehaztea, giza eskubideen urraketak identifikatzea, biolentzia motak aztertzea, kasuei lotutako dokumentazioa lortzeko bideak zehaztea..., gertatutakoaren balorazio justua izatearren.

Bestetik, gatazka armatuak bizi izan dituzten munduko hainbat herrialdek Trantsiziozko Justizia bideei heldu diete indarkeria egoeratik bake egoerara igarotzeko. Honen adibide izan dira, besteak beste, Hegoafrika, Irlanda, Jugoslavia, Zipre, Argentina, Txile edo Peru.

Trantsiziozko Justizia ez da justizia mota berezi bat, gatazka egoeratik bake egoerara doan trantsizio garai bateko justiziari ekiteko modua baizik.

Trantsiziozko Justizia mekanismo juridiko eta politiko multzo batez osatuta dago eta hauek, bake beharrei nola justizia beharrei erantzun behar diete, balore bi hauen artean oreka bat gordez.

Mekanismo judizialen tresnak ditugu amnistia eta indultu legeak; prozesu judizialak eta ikerketak eta sententzia penalak.

Indemnizazioak, aitortza moralak eta omenaldiak tresna politikoen artean aurkitzen dira;

Eta azkenik, egia batzordeak neurri judizial edo politikoen artean koka daitezke eman nahi zaizkien izaeraren eta konpetentzien arabera.

Justizi honen helburu nagusiak giza eskubideen urraketaren ondorioz gizartean sortu diren zauriak osatzen saiatzea da eta berradiskidetze prozesuetan aurre egitea, biktimen eta gizartearen egia, justizia eta erreparazio eskubideak bermatuz. Baita ere zigorgabetasuna ahal dela ekiditea, biktimei justizia eman eta errudunak erantzule egitea du xede.

Esperientzia hauen azterketa Euskal Herriko prozesurako baliagarria izango delakoan,

- Euskal Herrian Trantsiziozko Justizia bideei eta Egia- bideei buruzko gogoeta egiteko jardunaldiak antolatu edo antolatzeko laguntza eman, kanpoko zein bertako adituak deituz, bertan arlo horretan egun dauden baliabideak aztertuko dira eta, halaber, Egia-bideen nazioarteko adibideak aztertuko dira, euren bertuteak zein hutsuneak azalduta, laguntza eraginkorra eman nahian, gizarteak gai honen inguruan erabaki informatua har dezan.
- Biktima guztien sufrimendua aitortzea helburu duten ekintzak bultzatzearen garrantziaz sentibilizatu herritarren, elkarte eta udaletan ardura politikoa duten pertsonen artean.
- Biktimen oroimen ekitaldien antolaketari buruzko jardunbide egokiak sustatzen dituzten mintegiak egitea udalei begira.

### **3.2.2 Gizartearen berradiskidetzea**

Berradiskidetzea prozesu zaila eta luzea da berez, batzuentzat, ezinezkoa; guretzat berriz, egingarria da ideia sendo batzuetan oinarritzen bada. Biolentziak gaiztotutako gizartearen bizikidetza errekuaratzea egia, justizia, giza eskubideak eta bestea onartzearen baitan dago. Horrez gain, elkarbizitza demokratikoaren ondorioa beharko du izan, berdintasunaren, gehiengoaren iritzian oinarritutako erabakimen librearen eta eskubide guztien bermearen zorduna hain zuzen ere.

Labur bada ere, kontzeptu hauen balio eta ekarpenei aipamen txiki bat egitea merezi du.

Egia zor zaio pertsonari eta gizarteari, eskubidez. Biolentziak eta giza eskubideen urraketa guztiak agerian ipini behar dira guztion ezagutzarako, eta justiziari bidea zabaltzeko. Hauxe lehenbiziko eta funtsezko urratsa zauriak itxi nahi badira.

Justizia bakeari lotuta doa. Justiziaren ekimena beharrezkoa da gatazkaren inguruan izandako biolentziaren erantzukizunak argitzeko eta garbitzeko. Justiziaren eraginari esker biktimari biktima izateari uzteko aukera zabaltzen zaio; badago, noski, konponbiderik ez duen min ugari, justiziak partzialki bakarrik asebate dezakeena. Eta era berean egindako eraso eta sortutako sufrimendu eta kalteen kargei aurre egiteko aukera irekitzen zaio egileari .

Berradiskidetze ahaleginekin batera doaz giza eskubideen etika indartzeko lanak, halabeharrez. Giza eskubideak erlazio berriak gidatuko baitituzte, zilegi denari eta ez denari muga argiak ezarriz, eta horien errespetuan eta defentsan altxatuko da bakerako beharrezkoa den zorua.

Eta azkenik, baina aurrekoen garrantzi berberarekin, bestearen onarpena. Gatazka testuingurutan, aurka dauden taldeek ez dituzte bestearen mina eta egoera kontutan hartzen, beraiena baizik. Indarkeriazko gatazketako dinamika norberaren inguru ideologikotik gertu daudenen sufrimenduak eta minak detektatzeko eta sentitzeko



ahalmena izatea da baina ez "besteena". Konponbidea bilatzeko beharrezkoa da bestearen mina eta duintasuna begirunez ikustea eta errespetatzea.

Biolentziaren ondorioz apurtutako giza taldeen arteko harremanak berreraikitzeke norberaren jarrera aldatzetik hasi behar da. Jarrera eta jokabide pertsonalen aldaketa eskatzen du, estereotipoak identifikatu eta apurtzea; "Bestea" entzuteko, ulertzeko prest egotea, pertsonen arteko berdintasuna onartuz eta denen ideia eta iritziak errespetatuz.

Zentzu honetan, "Glencree"<sup>12</sup> izena duen esperientzia berrizaleak, pertsonen arteko harremanak eta adeitasunezko eztabaidaren garrantzia azpimarratzen duen ekimena sakona izan da bizikidetza baketsua eraikitzeari begira. Bere azken adierazpenean, norberak bizi izandakoa ezagutu eta elkarren berri aurre-aurre jakin ondoren, argi eta garbi aldarrikatu dute guztiek jasandako indarkeria bidegabea dela. Eta denek eskubide berberak (egia, justizia, memoria, onirizpena eta kaltearen ordaina) merezi dituztela.

Era berean, bertan parte hartu duen taldeak gure gizarteari gonbidapen zehatza luzatu diote: euren esperientzia eredu jarritz eta beste batzuk beren prozesuak egitera animatuz, dei egiten digute *"iragana era autokritikoan azter dezagun, beti ere egiarekiko eta justiziarekiko konpromisoan oinarrituta"*.

Komunikatzeko era berri honek erlazio ezberdinak sortzea ahalbideratuko du, hauek izango dira bakea eraikitzeke oinarri boteretsuak.

---

<sup>12</sup>Euskal Herrian gertatutako indarkeriaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketen biktimak elkartu dituen ekimena da Glencree. 2007 eta 2012 bitartean garatu du bere jardura isila. Tabuak eta oztopoak hautsiz, errespetu handiz hurbilduz elkarrengana. Bakoitzaren beldurrak eta estereotipoak, frustrazioak eta norberaren atsekabe-historia aurre aurre jarrita, elkarrekin bizitzeko oinarriak aztertu dituzte.

Gizarte-ehuna erreparatzeko neurriak ezartzeko, orain da garaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zeregin aktiboa hartu behar du horrelako ekimenetan, eskuz esku udalekin lan eginez.

### **UDALEN eginkizuna**

Arestian esan bezala, Zuzendaritza honen ardatz nagusia Gipuzkoako herriei eta herritarren arteko erlazioak hobetzeko ahaleginei begira dago, helburu nagusietako bat urteetan bizitako gatazkak urratutako harremanak konpontzea delarik.

Dudarik gabe, prozesu luzea eta motela dugu polarizazioak eragindako jarrerak eta eztabaidak eraldatzea komunikazio hobe eta aldean arteko errekonozimendu baten mesedetan, baina lan horri lehen bai-lehen ekiteak ziurtatuko du etorkizunean gizarte integratuago baten aukera. Gatazken Ebazpenen Teoriaren arabera indarkeria amaitu eta berehala egin beharreko auzia da, aldaketa politikoen islak gizartearen bizimoduan ikusi nahi badira.

Bestetik, berradiskidetzearen bideak zabaltzeko udalen jarduera ezinbestekoa da. Herriarengandik duten gertutasunagatik jendearengan eragin dezakete eta horien bultzadatik sortu daitezke elkarbizitzarako estrategia ezberdinak.

Baina berradiskidetze prozesuek ez dira nolanahikoak eta adituen aholkua eta gida behar dituzte. Zuzendaritza honen ardura berradiskidetze ekimenak bultzatzea den heinean udalei beharrezkoak dituzten tresnak erraztea da bere eginkizuna baita ere. Hortaz,

- Adituen laguntza programak eta aholkua eskaini udalek elkarbizitzarako planak edo eta ekimenak garatzeko.
- Berradiskidetze prozesuen definizioak eta osagaiak ezagutzera emango dituzten ikastaroak bultzatu udaletxeei eta elkarteei zuzenduak.

Udalen artean adostutako norabide bereko programak bultzatzeak berebiziko garrantzia du efektibotasunaren aldetik; helburu partekatuekin eta era koordinatuan, Lurralde Historikoan zehar lan egiteak emaitza sakonagoak eta sendoagoak erdiesteko aukera bihurtzen dira, eta hauek bilatutako aldaketaren motorrak izango dira etorkizunean.

Zeregin horretan, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritzak erreferentzia teorikoa erraztuko du, "Bizikidetza sustatzeko programaren" bitartez, bizikidetzari begira udalek martxan jarritako ekimenen gida izango dena.

Baina esan bezala, xede orokorra bera izanik, udalerrri bakoitzak era eta modu ezberdinez garatuko ditu bere ekimenak, beti ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza eta Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritzaren menpean sortuko den Aholku Taldearen aholkularitza izango duelarik.

Programak gizarteari orokorrean zuzenduko zaizkie. Jakina den bezala, urtetan bizitako indarkeriak udalerrietako egunerokotasuna eta bizikidetza baldintzatu ditu. Hortaz, orain da garaia:

- Segurtasunaz eta lasaitasunez gertatutakoaz mintzatzeko eta entzuteko. Elkarri zor diogun errespetua eta duintasuna aitortzeko eta bizikidetzarako beharrezkoak diren konfiantza baldintzak sortzeko.
- Norberarenak ez diren errealitateak ezagutzeko, gertatu zaiguna ulertu ahal izateko eta etorkizuneko bizikidetza bateratzailearen oinarriak ezartzeko.

Horretarako beharrezkoa da,

- Egoerak gehien kaltetu dituen herritarrak entzun eta kontutan izan herritarrek nahi eta sentitu dutena, erakundeek hartuko dituzten neurriak gizartearen babes handiago izan dezaten<sup>13</sup>:

---

Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza. GFA 2012: "Bizikidetza Sustatzeko Programa Gipuzkoan.

### **3.2.3 Oroimenaren berreskurapena**

#### **Oroimen Historikoa berreskuratzea eta biktimen aitortza eta erreparazioa.**

Berradiskidetzearen bideari ekitea eta denboran zehar horretan irautea oso zaila gertatu ohi da justiziaren eskakizunak bete gabe. Lehena da gertatu diren bortxaketak ikertuak eta argituak izatea, egia ezagutzeko eskubidea botere publikoak gertatu denaren oroitza iraun arazteko duen obligazio edo betebeharra baita. Estatuak eta botere publikoak egiarekin konprometitu behar dute eta gizarteak zer gertatu den jakiteko duen eskubidea asebate behar du.

Auzi hauei heldu ahala, gero eta handiagoak izango dira orain arte aurrez aurre izan direnak elkar ulertzeko eta begi onez elkar ikusteko aukerak.

Nazioarteko Amnistia erakundeak oraintsu argitaratu berri duen “Casos cerrados, heridas abiertas: El desamparo de las víctimas de la Guerra Civil y del Franquismo en España” txostenean adierazi duenez biktima horiek ez dituzte oraindik gauzatu ahal izan egia ezagutzeko, justizia eta erreparazioa lortzeko dituzten eskubideak, nazioarteko zuzenbidearen krimenen kasuan giza eskubide horiek bermatzea Estatuak duten nazioarteko betebeharra delarik.

Gerra zibilean eta diktaduran indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen Legean -Memoria Historikoaren Lege moduan ezagutzen dena- biktima horiek guztien aitortza mugatua ezartzen da.

Hona hemen, Lege horren inguruan, Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeak 2008ko urriaren 27ko adierazpenaren bidez espainiar estatuari ezarritako gomendioak:

- a. 1977ko Amnistia Legea baliogabetzea kontsideratu.
- b. Beharrezkoak diren legezko neurriak hartu nazio auziek bermatu dezaten gizateriaren aurkako krimenek ez dezaten preskribatu.
- c. Aditu independenteekin batzorde baten osaketa aurreikusi gerla zibilean eta diktaduran urratutako giza eskubideei buruzko egi historikoa berreskuratzeke; eta
- d. Biktimen gorpuzkinak identifikatu eta hobitik ateratzeko familiei baimena eman eta dagokionean kalte-ordaina eman.

Izan ere, Gipuzkoan Oroimen Historikoa berreskuratzearen aldeko elkarteen mugimendua bizia izan da azkeneko hamarkadan, eta horri esker dagoeneko hainbat lan eta ikerketa burutu dira. Zuzendaritza honek lan horien jarraipena bermatu eta ekimen berriak garatuko ditu egia justizia, eta kalteak osatzeko konpromisoan aurrera egiteko.

Gorpuak lurpetik ateratzearen inguruan azken urteotan hasitako lanek emaitza sendoak eman dituzte. Orain arte ireki diren hobi komunak, Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik egin dira, Eusko Jaurlaritzarekin sinatu duen hitzarmen bati esker. Arrazoi ezberdinak direla medio aipatutako hitzarmen horretan jasotzen ez diren kasuak agertuko balira, Gipuzkoako Foru Aldundiak baloratu eta erabakiko du Lurralde Historikoaren biktimen gorpuzkinak lokalizatu eta errekuiperatzeko lanak bere gain hartzea.

- Bertako erakunde eta elkarte eskudunekin lan hitzarmenak egin Gerrate Zibil eta frankismoaren garaiko giza-eskubideen urraketen biktimen gipuzkoarren gorpuzkinak lokalizatzeko beharrezkoak diren ikerketak egiteko Euskal Herriko geografiatik kanpo.

Bestetik Justizia bete ahal izateko ikerketa hauetan prozedura egokiak erabiltzea bermatuko da, prozesu judizialek eskatzen dituzten frogak aurkezteko baldintzei moldatzeko.

*Oroimenaren berreskurapenerako lagungarri diren ekimenak:*

- Zuzendaritzaren webgunea sortu Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren inguruko informazioa eskainiz: estrategiak, helburuak, lehentasunak eta Zuzendaritzaren lan planak; martxan dauden ekintzei buruzko informazio eguneratua emango du halaber. Gipuzkoako Foru Aldundiak diru laguntzez babestutako lan eta proiektuetatik ateratako informazioa (datuak, ikerketak, argitalpenak, irudiak, audio eta bideo grabaketak...) jaso eta ordenatuko du. Finean, Zuzendaritzako leihoa izateko asmoa du.
- Ikerketak eta argitalpenak bultzatu udaletxeei zein elkarteri emandako diru laguntzen bitartez.
- Trantsiziozko Justizia bideei eta Egia-bideei buruz egingo diren Jardunaldietan kontutan hartuko dira oroimen historikoaren garaiko giza eskubideen urraketak eta sufrimenduak.
- Aitortza eta Oroimenaren berreskurapenaren aldeko ekimenak eta omenaldiak sustatu eta beraietan parte hartu.
- Udalerrietako artxibo historikoetan informazioa sailkatzeko ekimenak bultzatu.
- Berradiskidetzea, Oroimen Historikoa eta belaunaldien arteko transmisioa edo trukaketa bultzatzen dituzten ekimenak sustatu. (Ikus Adina bereizkeria faktorearen atalaren barruan, Zaharrak berri ekintza)

### 3.3 Giza Eskubideen Erakundeak<sup>14</sup>

Giza Eskubideen Institutu publiko eta ofizialak sortzeko euskarria eta oinarria Vienako Konferentzia dugu, Nazio Batuek bultzatutako eta 1993an egindako Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzia. Konferentzia horrek eskatu zuen Giza Eskubideak babestu eta sustatzen dituzten erakundeak sortu edo indartzeko.

Mota honetako Institutuak tresnak dira giza eskubideen kultura modu iraunkor eta sistematikoa bultzatzeko, hain zuzen ere, erantzukizun publikoa duten egituretatik.

Giza Eskubideen Institutuak mekanismo autonomo bat izan behar du; mekanismo koordinatzaile, dinamizatzaile aholkulari, autonomo eta independentea, eta giza eskubideen inguruko politikak eta giza eskubideen kultura ahalik eta ondoen sustatzen saiatu behar du, horien urraketak saihesten laguntzeko.

Zuzenbide administratiboko mekanismo edo erakunde autonomoa izanda, honako funtzio hauek eduki beharko lituzke institutuak:

a) Informazio-funtzioa:- Giza eskubideen inguruko informazioa sistematizatu, gizarteko eta bertako erakundeen zein herritarren esku jartzeko. Giza eskubideei, hitzarmenei, aholkuei eta nazioarteko auzitegien jurisprudentziari buruzko informazioa emateaz gainera, Gipuzkoarako giza eskubideen planaren alde aurreko diseinu honen beste atal batean proposatzen den kasuistikako datu-basea ere har lezake institutuak.

b) Koordinazio-funtzioa: giza eskubideetan interesatuta dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoko aldeak koordinatuko lituzke institutuak, horien artean nahiz lurralde-esparrutik kanpoko erakundeekin loturak sortzeko

---

<sup>14</sup> LANDA J.M. (Zuz.) GARRO E.: 2012. *Gipuzkoako Giza Eskubideen Institutua* GFAko Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritzak eskatutako Ikerkuntza-proiektua.



eta informazioa trukatzeko. Aldundiak aurrera eramaten dituen giza-eskubideetako politiketarako koordinazio-gunea izango litzateke.

c) Aholkularitza: Foru Aldundiari eta GKEei, Lurraldeko gainerako tokian-tokiko erakundeei edo behar duten herritarrei giza eskubideen inguruko aholkularitza eman liezaieke.

d) Sustapen, prestakuntza, trebakuntza eta ikerketa akademikoa giza eskubideen arloan, horretarako lekuak, biltzar eta mintegiak, prestakuntza-materialak, trebakuntza-programak, jardunbide egokien kodeak, ikerketa akademikoa eta abar bultzatuta.

e) Behatokia, giza eskubideen urraketak aurreikusteko lan kritikoa egiteko eta giza eskubideen iraganeko urraketen inguruko egia ezagutzeko. Atal honetan litzateke oso erabilgarria plan honetan iradokitako giza eskubideen urraketen datu-basea jartzea.

Hasieran, gutxieneko egitura edukiko luke institutuak, eraginkortasun irizpideak bilatuz, baina aldi berean dagokion Administrazioarekiko jarduera-askatasuna bermatuta, giza eskubideen aldeko lana independentzia eta sinesgarritasun nahikoarekin egiteko.

Ekimen honek Lurraldean giza-eskubideen inguruko politikak indartu etaosatzen laguntzea du xede foru erakundearen eskutik.

Berauen jatorria aurreko legealdian izan zuten, Giza eskubide, Kooperazio eta Berdintasun Zuzendaritzarekin batera. Gaurko jardutean, Giza Eskubide eta Oroimen Historikoari lotutako gaiek Zuzendaritza propioa dute eta horren ondorioz hauekiko

konpromisoa indartu egin da eta horrez gain bizikidetzaren berreskuratzea gehitu zaio bertako agendari.

Eremu honetan lan egiteko Plan bat egin da, Giza Eskubideak hedatu eta defendatzeko, Oroimena berreskuratzeke eta Bizikidetza osatzeko estrategia eta ekimen nagusiak jasotzen dituen. Zeregin honekin bat eginez eta helburu hauei begira izango den Giza Eskubideen Institutu bat sortzeak arlo honetako lana indartzera eta laguntzera eramango gaitu. Hori da bere funtzioa.

Aurkezten dugun Institutuaren proposamenak Gipuzkoako errealitatea eta Europako hiru ereduak buruzko ikerketaren ondorioz eginiko lanarena da.

Giza-eskubideen gaien koordinaketa, aholkularitza, informazioaren hedapena, prestakuntza, ikerketa eta prebentzioaren zerbitzura jarriko den azpiegitura sortzea du helburu, eta lurraldeko udalen lanerako erreferentzia izango dena.

Gai hauei buruzko nazio mailan sortuko den inongo erakunderen lanean ez du sartu nahi, guztiz kontrakoa baizik. Koordinazioa eta elkarren osagarri izatea bilatuko ditu helburu berdin edo bateragarriak diren ekimen eta erakunde ororekin.

#### **4. ERRONKA GEHIAGO**

Azpimarratua geratu den bezala, eta Nazioarteko Giza Eskubideen araudiari so eginez, Zuzendaritza honen zeregina dira baita ere euskal gatazkaren orbitatik kanpo geratzen diren beste giza eskubideen urraketa larriak eta Nazio Batuen Erakundearen filosofia honekin bat egiten dutenak: "Eskubide guztiak pertsona guztientzat". (Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 60. Urteurrenaren ospakizuna zela eta bultzatua).

Argi dago, Zuzendaritzak giza eskubide guztien defentsa eta promozioarekin duela konpromisoa baina, Gipuzkoako Foru Aldundiko gainerako Zuzendaritzekin batera lan egingo du, Euskararen Zuzendaritza, Berdintasuneko Zuzendaritza, Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritza, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua edo Gizarte Politika Departamentuarekin, besteak beste.

Atal honetan, sentsibiltate eta prestakuntza eremuan egingo diren ekimenak gailenduko dira, ikastaroak antolatuz eta material didaktikoak argitaratuz.

- **LGBTI (Lesbianak, Gay, Bisexual, Transexual eta Transgenero, Queer eta Intersexual) pertsonen bereizkeria eta indarkeriaren aurkako prebentzio ekintzak bultzatu gazte eta nerabeen artean.**

Arartekoak txosten monografiko batean<sup>15</sup>, aipatutako datuen arabera, inkestak %83k aitortu zuen sexu-orientazioan oinarritutako irainak entzun edo ikusi izana. Erdiek (%50) mehatxuak ikusi zituzten, eta %37k, berriz, jipoiak. Ikasleen %30ek LGBTI pertsonen kontrako irainak egin edo erabili izana aitortzen zuten. Ehuneko 6,8k, mehatxuak, eta %3,2k, inor jipoitu izana. Ikasleen %16-10ek indarkeria homofobia jasan izana aitortzen zuen: irainak, mehatxuak, burlak edo bultzadak. Ikasleen %2,6k euren orientazio homosexualagatik jipoiak jaso izana adierazi zuen. Azterketaren ondorioetako bat da nerabe eta gazte transexualek are arbuio handiagoa pairatzen dutela, batez ere ikaskideen aldetik.

Aurreikuspena ezinbestekoa bada ere, funtsezko elementua da gehiegikerien biktimei informazioa eta arreta eskaintzea, urratutako eskubidea berreskuratzeko. Arartekoaren 2011ko txostenean kezka handia ikusten da Euskadin *“diruz lagundutako jarduerak oso eskasak direlako LGBTI pertsonen arreta osoa eskaintzeko; izan ere, lehen mailako aholkularitza eta arreta baino ez da ematen, arreta psikologikoa, jarraipena eta kasuen orientazio sakona alde batera utzita”*.

Premisa horietatik abiatuta, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Planean proposatzen da:

---

<sup>15</sup> ARARTEKO (2008): Nerabe eta Gazte Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualak: Trabak eta Gaitzespenak Beren Garapen Pertsonalean, Harremanetan eta Sozializazioan

Sexu-orientazioan eta/edo genero-identitatean oinarritutako bereizkeriaren eta *gorrotozko delituen* **prebentzioa**. Gipuzkoako herritarrak, gazteak batez ere, kontzientziaztea, LGTQBI pertsonen bereizkeria giza eskubideen urraketatzat har dezaten eta horren prebentzioan inplika daitezen.

Ekimen hau Berdintasuneko Zuzendaritzaren eta Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuaren koordinaketarekin egingo da.

- **Adina, bereizkeria faktore**

Adinekoen arreta batez ere Gizarte Politikako Departamentuaren ardura bada ere, gainerako departamentuei ere eragiten die, prebentzioa eta ekintza positiboa oso garrantzitsuak baitira.

Zahartzaroan handitu egiten da bereizkeria arriskua. Gaitasun fisiko eta intelektualak galtzeak areagotu egiten du adinekoak zaintzeak suposatzen duen zama.

Horrekin batera, gizartea gero eta lehiakorragoa izaki, aurrerapen teknikoak gero eta zirrikitu handiagoa ari dira eragiten; gazteek gero eta gizarte garrantzi handiagoa dute, eta adinekoak, berriz, gero eta baztertuago sentitzen dira.

Horrek guztiak eta gizarteko balioak aldatuz joan direla aintzat hartuta, lehen balio bat zenak (adinak emandako esperientzia, jakinduria, komunitateko kide gazteenei aholkuak emateko eta gidatzeko gaitasuna) garrantzia galdu du, adinekoek gizartean *irudi txarra* edukitzea ekarri du, eta adinekoak zama bezala ikustea laguntza-iturri baino gehiago, mendekotasun-maila batetik aurrera gizarte baliabideek gehiegizko kontsumitzaile moduan ikusteko arriskuarekin, haien eskubide oinarrizkoenak ukatzea planteatzeraino: autodeterminaziorako, osasunerako edota bizitzeko eskubidea.

Errekonozimendu sozial ezak eta *irudi sozial txarrak* adineko batzuek garrantzia galtzea dakarte, eta, beraz, “bigarren mailako herritar” izatea; haien eskubideen egoeran islatzen da hori.

Aurkeztu nahi dugun ekintzak jomuga nagusi hauek ditu:

-*Zahartzaroaren* irudia hobetzea. Bizitako indarkeriazko egoeraren ondoren adinekoek euren ekarpenekin komunitateak eta gizartea leheneratzeko eta berreraikitzeke ekarpenak egin ditzaten lagundu.

-Oroimen Historikoa berreskuratzearen aldeko lanen benetako protagonistak aintzat hartu. Pertsona horietako asko protagonista zuzenak izan dira, eta garrantzitsua da haien kontakizunak entzutea.

-Berradiskidetzea sustatzea frankismo garaian pairatutako giza eskubideen urraketen testigantzak aditzera emanez eta egia azaleratuz.

-Gazteen parte-hartzea sustatzea Oroimenaren berreskurapenaren prozesuetan.

#### *Ekintza: Zaharrak berri*

Zaharrak berri ekimenaren egitura eta edukiaren diseinua burutu eta Gipuzkoako udal herriak proiektuan parte hartzeko sustatu eta motibatu.

Ekimen honek Oroimen Historikoa, berradiskidetze eta belaunaldien arteko transmisioa edo trukaketa elkartzen ditu eta bizpahiru urtetako garapena izango du.

Frankismoan bizitako indarkeriazko egoeraren ondoren eta gatazkaren biktima diren adinekoek euren ekarpenekin komunitateak eta gizartea berreraikitzeke ekarpenak egin ditzaten laguntzea du xede. Horretarako komunitateko gazteak izango dira beren bizipenen testigantzak jasoko dizkietenak, belaunaldien

arteko komunikazioa eraginez. Modu honetan, gaurko gaztediari biharko gizartearen eraikuntza parte hartzeko aukera irekiko zaio.

Prozeduraren eredurako ohar batzuk:

1.- Zaharrak berri ekimena talde batek dinamizatuko du (lan-taldeak) tokian tokiko irizpideak zabaldu, aholkua eman eta lanari jarraipena eginez. Prozesu guztiaren jarraipenaz arduratuko da, adinduak eta gazteak baliagarria den ekintza batean lanean ari direla sentiaraziz eta inplikazioa bultzatuz: Ekimenaren aurkezpen zintzoa egin, helburuak argitu, zer espero den eta nola lortu, zertarako eta abar.

2.- Proiektua, lehenik, esperientzia-pilotu batez hasiko da, Lurraldeko udal batekin edo gehienez birekin lehen mugimenduak egingo ditu. Metodologia azaldu eta eman beharreko pausuak beraiekin batera zehaztuko ditu lan-taldeak

3.- Elkarrizketak egiteko guztiz beharrezkoa da prestakuntza. Ikastaro bat eman behar zaie horretan dihardueneko diren gazteei, ikastaroak batez ere biktinekiko tratu egokia bereganatzea izango du helburu nagusia.

4.- Segimendua eman prozesu osoari, talde dinamizatzailerak izango du horren ardura. (Lehen elkarrizketak eta gero bilera egin kezkak plazaratzeko, sortu diren zalantzak, zailtasunak eta abar mahai gainean jartzeko.)

5.- Bideoz grabatu behar bada, bideo grabaketei buruzko oinarritzko ikastaroa eskaini.



- **Gipuzkoan izandako adopzio prozesuen ikerketa**

Gipuzkoako Foru Aldundiko artxiboetan dauden adopzioen espedienteetan ikerketak egin.

Ikerketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren eremuan izandako haurren adopzio prozeduren gainean izango da: nola izan diren adopzio prozesu horiek eta zein jarduera eta neurri hartu diren adopzioarekin zerikusia duen haurren babesari dagokionez. Orobat, gai horien inguruan Gipuzkoako Foru Aldundiak dituen artxibo, erregistro eta dokumentazioa nola dauden ezagutzea, gai hauei dagokienez.

Bestetik Fraisoro etxean haurrak uzteko zein prozedura eramaten den ezagutzea hala nola zentro horretan eta beste zentro batzuetan emakume haurdunei arreta emateko haurdunaldian eta erditzean zehar zein prozedura jarraitzen zen jakitea; edo haur bat hiltzen zenean edo eta haurrak adoptatzeko orduan.

## 5. BIBLIOGRAFIA

ARGITUZ. 2012: *Giza eskubideen Plan bat Gipuzkoarentzat. Lehen urratsak*

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren Hautazko Protokoloak

Torturaren Aurkako Konbentzioa

Giza eskubideen nazioarteko arauen urraketa garbien eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek helegiteak jartzeko eta erreparazioa izateko duten eskubideei buruzko printzipio eta jarraibide oinarritzkoak (60/147 ebazpena, NBEaren Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartutakoa)

Edozein atxiloteta edo kartzelaratze mota jasan duten pertsonak babesteko printzipio multzoa, Batzar Nagusiaren 43/173 ebazpena, eranskina, 43 U.N. GAOR Supp. (49. zk.) 298. or, NBEaren A/43/49 agiria (1988)

Presoak tratatzeko oinarritzko printzipioak, NBEaren Batzar Nagusiak 1990eko abenduaren 14ko 45/111 ebazpenean onartutakoak

Presoak tratatzeko gutxieneko arauak, Delituaren prebentzioari eta Delitugilearen Tratamenduaren buruzko Nazio Batuen Lehenengo Batzarrak 1955. urtean Genevan onartutakoak.

107/2012 DEKRETUA, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa.

4/2008 LEGEA, ekainaren 19koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa.

LEY 29/2011, de 22 de septiembre, de Reconocimiento y Protección Integral a las Víctimas del Terrorismo.

LEY 32/1999, de 8 de octubre, de Solidaridad con la víctimas del terrorismo.

52/2007 LEGEA, abenduaren 26koa, gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edoindarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen, eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen.

ARGITUZ. 2011: Txostena, *Motibazio politikoagatiko indarkeriagatiko bizitzeko eta segurtasun fisiko eta psikikoa edukitzeko eskubideen urraketa*ren mapa

ARGITUZ. 2012: Txostena, *Orain da Garaia. Posible al da esparru lokalean biktimen oroimen bateratzailea? Esperientziak eta erronkak.*

ARGITUZ. 2011: *Euskal Herrian gertatutako Motibazio Politikoko Indarkeriaren Biktimen Politika Publikoak ebaluatzeko Txostena.*

Johan Galtung. 1996: *Peace by Peaceful Means: Peace and Conflict, Development and Civilization.* London: Sage.

Johan Galtung. 1998: *After Violence 3R, Reconstruction, Reconciliation, Resolution. Coping With Visible and Invisible Effects of War and Violence.* Princeton, NJ: TRANSCEND

Giza Eskubideen Zuzendaritza. 2009: *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzarako Euskal Plana (2008-2001).* Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila. Eusko Jaurlaritza.

Giza Eskubideen Zuzendaritza. 2009: *Giza Eskubideen politika Euskadin. VIII. legegaldiko (2005-2009) jardueren memoria eta etorkizuneko erronkak.* Eusko Jaurlaritza

Aieteko Adierazpena. 2011ko urria

Hugh Miall, Oliver Ramsbotham, Tom Woodhouse. 2001: *Contemporary Conflict Resolution.* Polity Press

LANDA J.M. 2008: *Indarkeria Politikoaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketen biktimak.* Txostena. Eusko Jaurlaritza

LANDA J.M. (Zuz.) GARRO E.: 2012. *Gipuzkoako Giza Eskubideen Institutua* GFAko Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritzak eskatutako Ikerkuntza-proiektua.

*Glencreeko Adierazpena.* 2012ko ekaina.

Bakerako eta Elkarbizitzarako lantaldea. 2012: *Printzipio eta Konpromisoen proposamena.* Eusko Legebiltzarra

Gerniako akordioa. 2010eko irailak 25. Gernikako Akordioaren Adierazpena. 2011ko abenduak 17

ARARTEKOA (2008): *Nerabe eta Gazte Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualak: Trabak eta Gaitzespenak Beren Garapen Pertsonalean, Harremanetan eta Sozializazioan*

ARARTEKOA (2009): *Txostena. Euskadin terrorismoaren biktimei erankundeek emandako arreta*

Gipuzkoako Foru Aldundia. 2009-Bakea bultzatzeko eta terrorismoaren biktimen oroimena indartzeko plana:.

Memoria. Cuatro años después 2007-2011. Gipuzkoako Foru Aldundia. Giza Eskubideak, Lankidetzeta eta Berdintasun Zuzendaritza

HERMES, Pentsamendu eta historia- Historia y pensamiento Aldizkaria. *La reconciliación, exigencia de una paz auténtica*. Abendua 2011. SAF (Sabino Arana Fundazioa)

Proyecto. 2011: Evaluación de políticas públicas de impulso de la paz y de fortalecimiento de la memoria de las víctimas del terrorismo. Instituto vasco de criminología /Kriminologiaren Euskal Institutoa. EHU-UPV

Brandon Hamber. 2011: *Transformar las sociedades después dela violencia política. Verdad, reonciliación y salud mental*. Institut Catalá Internacional per la Pau

Carlos Martín Beristain, Darío Páez Rovira. 2000: *Violencia, apoyo a las víctimas y reconstrucción social. Experiencias internacionales y el desafío vasco*. Fundamentos

Carlos Martín Beristain. 2011: *Violencia, polarización o ¿(re)conciliación? El caso vasco*. Polarización social y política en Venezuela y otros países. Experiencias y desafíos. Temas de Formación Sociopolítica. nº 49

Sabino Ormazabal. 2012: Artículo. *Intentos dados en la Historia reciente y pasos a dar en el futuro. Cuatro formas de hacer el relato*

WEBGUNEAK:

<http://www.un.org/Overview/rights.html>

<http://www.euskalmemoria.com>

<http://www.lokarri.org>

<http://www.baketik.org>

<http://lau-haizetara-gogan.blogspot.com>

<http://gesto.org>

<http://gernikagogoratuz.org>

<http://aranzadi-zientziak.org>

<http://unescoetxea.org>